

I Urtarrila 2019 I



2030. urtea epemuga jarrita, Eusko Jaurlaritzak [Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategia](#) rako proposatzen dituen gako nagusiak aztertzeko Euskadiko ekonomia, gizarte eta ingurugiroaren sektoreko eragile guztiek bat egin zuten pasa den urtarrilaren 16an.

Elena Moreno, Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko sailburuordea, izan zen ekitaldiari hasiera eman ziona eta ekonomia zirkularraren alorrean Euskadi zein egoeratan aurkitzen den azaldu zuena. Bere hitzetan “2000. urtetik euskal ekonomiak %26ko hazkundea izan du, eta materialen kontsumoa ordea, %25 murriztu da”. Aldaketa honen ezaugarri nagusia ekoizpen prozesu osoan zehar egiten den optimizazioa da; disenua eta fabrikaziotik hasi, kontsumo eta berrerabilpen, birmanufaktura eta birziklapen prozesuetatik jarraituz, eta probetxugarriak ez diren hondakinen ezabaketara heldu arte. Modu honetan baliabideen sarrera murrizteaz gain, hondakinen sorrera ere gutxitzen da.

Ekitaldiak iraun zuen bitartean bertaratuek lanerako mahai ezberdinetan parte hartzeko aukera izan zuten. Azaro Fundazioak bere aldetik, enplegua eta negozio eredu zirkular berritzaileen mahaian parte hartu zuen eta bertan, sektore industrialean balio kate osoa inplikatzeko eta ekonomia garapen jasangarriago baterantz abiatzeko erakunde-traktoreen sentsibilizazioak duten garrantziaz aritu zen.

Horretarako Azaro Fundaziotik ekonomia zirkularraren estrategia ekintzailletzan, zein barne-ekintzailletzan bultzatzen da, gure herrialdeko ekonomiari hazten laguntzeko aukera moduan.

Aipatutako Estrategian ekarpenak egin nahi dituztenek otsailaren 1era arteko epea dute, horretarako estrategiaec2030@ihobe.eus helbidera email bat bidaliz.